

"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA. DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Pamplona - diciembre - 1966

DIRECTOR: J. E. URANGA

EGUBERRI



Amets luze bat bezala, amabost egun aurretik hasten da Eguberri. Haurrerri galdegin, edo ikastetxetan ikusi!

Gorostiya eta elurra jeisten dira menditik eta odoldio gaixoak ematen du etxetan lanik aski. Pobre bizi eta aberats hil...

Denda eta bazter guzitan, salgai, turrón eta edari gozo garestienetatik, beren buruak aski ezin erakutsi!

Diru meta aundiaren ametsak: burua bero ta esku otzak. Gero, azkenean, asieran bezala.

Gure etxetan, lege zaharra; oberena. Supil aundiari etorri zaio bere eguna eta, oillar gorri buru-arroak kondatuak ditu azken orduak. Badu munduan borrokarik aski egina!

Atsalde erdirako asiko da aita agotz-arbiak prestatzen. Ain atsalde gutxi dago! Iluntzean izango dute aziendak urri-belar goxoetik saretan, eta sudur muturrean irina —arraultze goxoa jan eta garbitu ez den haurrak bezala—. Auendako ere Gabonak di-rela, zion aitak.

Ganbarako mai aundia gauzez betea da. Egurrezko mendi eta errizko munoak. Paperrezko etxe ta zilar ura. Aitak pino aundi bat itzeman die eta iluntzean piztuko ditu argiak. Askari luze da ordu arte egon beharra! Amak estalia du Jesus-Haurra.

Amona su bazterrean, beti bezala. Maia aundiegi heldu zaio jar-leku txikiarendako. Ortzik ez du eta jaten duenarendako behar aundirik ere ez. Salda beroak barnea pizten dio; gero, sagar egosiekin edari goxoa. Gastu aundia dago gaur familitan; lehen etzen ala. Orduan gutxiegi bezala, oraikoa gehiegi da. Askari lan izango du munduak... Bildur orrekin joan beharra da mundutik amona.

Haurrak loari ezetz esana zioten goizetik. Gau erdiraño gelditu nahi zuten gaixoak. Baño, loak ez die obeditu nahi. Begiak erdi idekirik eta burua kokotz gainean..., aien aingeru zaindaria joan daizke, bildurrik gabe, zeruko gabon-afarira. Egunaz ibiliak baiziren ametsetan, etorri zaie orai lo egiteko garaia. Haurren gauzak.

«Príncipe de Viana», gure aldizkariak, atsegin aundia du Nafarroko sukaldetan sartzean. Amona bezala txokoan bazterturik egongo bada ere, badaki bere etxean dagola. Euskeraz aditzean poztuko da eta eskutan artzen baduzue, bietan.

Pakearekin Eguberri
Osasunakin Urteberri
Jainkoak dizuela guziera!

SANTI BATEK, ANDERE...

Gau-onetako kantu au Luzaiden bildua da. Baxena-barren ere egiten dute. Etxez etxe puskaketa ibiltzen garai batez, eta orduan kantatzen zuketan.

Santi batek, andere,
Aurten bezala gerore,
Santi batek igortzen gaitu xingarketa gu ere.

Ez gabiltza ederrez
Ez eta ere beharrez:
Kostuma zaharren uztez erreprotxa beldurrez.

Tolos'eta Bayona
Jainkoak dauz'egun ona
Guri xingarraren emaitera jaiki bazinte huna!

Ez dugu nahi urdia
ez et'are erdia
Usaia gatik, kostuma gatik, liberako zatia
Liberako zatia eta gerrenaren betia.

Etxian eder gerrena
Etxekandere lerdena
Zur'eriko eraztun ortaz eros niro Bayona.

Etxian eder kortzeiru
Dabiltzanien inguru
Etxe ontako etxekandera zer emazte plaxental!

Etxian eder ohako
Haurra sortzen deneko...
Etxe untako etxekandera zaldiz elizarako,
Zaldiz elizarako ta, zilar kaderan jarriko.

Landan eder ilarra
Haren pean belarra...

Etxe ontako etxekandera Parabisuan aingeru.

(emaiten ez bazuten).

Goazen, goazen emendik,
Emen ez duk xingarrik;
Etxe ontako gazitei txarrian sagiak umiak azten tik!



ELUR, MELUR



Elur, melur,
Otso guzien lagun!
Gure bortan bi txakur.

Elur, melur,
Ortzak zorrotzak dituk
Bazka delaik xuhur!

—Nun aiz, elur?
Ire ortz luziak, nun?
Aurten gosarik ez duk?

Goyen elur
Eta behean ur:

Ardiak pozik dittuk.

Gero, mutur,
Joan beharko duk urrun
Iruzkiaren beldur.

Bat, bi, iru
Eta ainbeste aingeru
Nere ardien inguru!

Elur, melur,
Eta infernuko debru!
Ez nuk gaur zuen beldur!!

Elur, melur,
Gure etxian baduk
Zapet eta egur!

J. M. S. (1966)

EGUBERRI ON, URTEBERRI ON, JAUNGOIKOAK DIZUTELA ZORION



URMENETA JAUNA, EUSKAL AKADEMIAREN LAGUNTZAILLE BERRIA

Euskaltzaindiak (Akademiak) Azaroko billeran, «Principe de Viana»-ko buru den Urmeneta jauna laguntzailer izendatzea erabaki zuen.

Izendamen onen bidez, Urmeneta jaunak Nafarroko euskeraren alde egiten duen lanez esker ona agertzen dio.

Eta guk, berak sortu eta bere babesean agertzen den aldizkari ontan lan egiten dugunok, biotzez pozten gera eta zorionak eman nahi dizkiogu.

Ekin eta jarrai, adiskide!



ESPAÑAKO GAUZAK

EMIGRACION

Según estadísticas oficiales, desde 1940 hasta 1960 abandonaron el país más de un millón de españoles. Algunos datos más recientes:

- So'amente en 1965, fueron 181.279 los que fijaron su residencia en otros países europeos. De ellos:
- 65.146 corresponden a Alemania.
- 55.865 se quedaron en Francia.
- 28.055 eligieron Suiza.
- En el mismo año emigraron a ultramar 21.391 compatriotas. 16.855 partieron por vía marítima; y 4536 en avión.

Proporcionalmente, el incremento mayor corresponde a la salida de los trabajadores de temporada. A partir de 1960, que sólo registró un éxodo de 24.778 obreros, fueron 103.506 en 1964. En 1965 salieron a trabajar fuera 180.702 ciudadanos españoles, en su mayoría trabajadores.

Un total de 178 misiones católicas atienden en el extranjero a los trabajadores: 162 en Europa, 2

en Australia, uno en Africa y 13 en América. Pamplona destina 13 capellanes para atender a los emigrantes. Va en cabeza de las diócesis españolas, seguida de Calahorra, Logroño y Lugo, con siete sacerdotes cada una.

El importe de las remesas enviadas por los emigrantes en 1965 ascendía a la fabulosa suma de 22.880 millones de pesetas.

MIGRACION INTERNA

El volumen actual de movilidad interna es de unas 500.000 personas al año. En 1965 se registraron 466.755 cambios dentro de España. Jaén arroja la cifra de 227.660 emigrantes caseros, en el período 1940-1960. Le sigue Granada con 190.513 y Córdoba con 165.395.

- Barcelona encajó en el mismo período 681.151 nuevos ciudadanos.
- Madrid 637.562.
- Se establecieron en Vizcaya 115.277; y 59.314 en Guipúzcoa.

Un 27 % de todos los que se desplazan proceden de municipios menores de dos mil habitantes.

ESKUALERRIKO LEIOA

Eskutatik joaten ari zaigun urte zaharrea, agotan ibilia dugu gure izkuntza maitea. Eskuara gora eta eskuara bera! Alde batetik, berri on! Baño batzutan, mesedetan izan da; beste batzutan, ez ain mesedetan. Mesedetan izan da:

- Bilbo'n istillu askoren ondoan, bi izkuntzetan erakusteko ikastetxe bat zabaldu bai dute! Eta ikasle asko du, naski. Pozgarria.
- Frantziko eskoletxe aunditan, bigarren izkuntza bezala, artu dute eskuara. Aspaldiko solasa, amets zaharra! Eskuekin arrapatzeko moduan zegola uste, eta beti iges egiten. Oraikoa badirudi...
- Euskaltzaindiak (Akademiak) ere Madrilen zerbait egin nahi luke. Bigarren izkuntza bezala, eskol-ttipi eta bigarren maillekotan sartzea eskatzen du. Ango berririk ez dugu izan.
- Eskual liburuak salmenta ona dute garai ontan. Idaho aldetik eskatzen dituzte gehienik. Marka ona.
- Ikastolak indar aundia artzen ari dira Gipuzkoan. Nafarroan ere asmo onak badira; anak, zangoak dituzte motzak. Otxagi, Alsasu, Lesaka, ta Leitzeko eskolak gutxiere baitan egon behar dute; baño, dena dela, gutxi ori falta... Urte-berri, bizi berri izango balitz!

Alare, ez dira berri guziak aurrera egiten dutenak izan. Gure arra agertu da. Orain baño len bazen ar ori; baño, lotsaz etzen agertzen. Negargarriena, lotsa galdu eta kanpora ateratze ori izan da. Eta eskualdunen agotik atera ere!

Itz gutxitan esango dugu:

- Eskuararik gabe Eskualerriak berdin iraungo lukela, esan du norbaitek. Gure izkuntza galduta ere, istoriako liburutan Eskualerria nun, eta nolatsu izana den jakingo litzakela? Bai, naski.
- Eskualdun izaten segituko lukela? Ez, eta ez! Barkemendurekin, astokeri aundi bat esatea da.
- Aurten gertatua: Urdin'go famili bat Alsasura bizitzera joana. Auzo erriak dira eta, iru kilometro baizik ez da batetik bestera. Urdingo familiak eskuara mintzo du. Alsasun zaharrak bakarrik. Eta Alsasuko eskualdun zahar oien aurak, «El Vasco» esaten diote urdindarren mutikoari.
- Ez da esatea bakarrik. Eskualdun izanak dira Erriberri (Olite), Lizarra (Estella), Gares (Puente La Reina). Zer dira orai? Itz egin baño len komeni da beti zer esatera goazen jakitea. Pundu ontan aski da Nafarroa etorri eta ikustea.

Nik ez dut ikusi inoiz trenbiderik gabe ibil daiken trenik. Bideberriz balin badabilta, trolebusak edo beste zerbait izango dira! Eta soketan dabilzanak «funicular», edo beste alako. Baño trenak, ain beharrezkoa du trenbidea! Eskualerriak eskuara bezala. Eta bestela, ikusi Nafarroan gertatu dena...

Lukasen ogibidea

Lukasek gertaera asko kondatzen ditu. Laurogei ta bost urtez ainbeste gauza ikusi eta ikasi daizke munduan!

Ez dira barregarriak istillu guziak. Bere gazte denborako lanbideak nola ziren aditu ta irri-karkail gutxi egiten dute entzunleak. Eskualerriaren zorigaila aspaldikoa baita, zirritu beltzak ageri dira gure aurrekoen bizimoduan.

Amazazpi urtetan «Puentenuevo» ko arzu ta minetara joan behar ukan zuen Lukasek. «Ango bizimodu zer zen!! Ez esateko ohea da: goizeko seiretatik, atsaldeko zazpitarra lan egiten ginuen. Eta zer lana! Ango kapatazak mandoendako eginak zituzken Jainkoak. Ezutzen itz bat bestea baño politagorik: beti astokeriak».

«Geienok gaixotu ta eri etortzen ginen Bizkaiaik...» Itz auek adierazten dute zirriturik beltzena. Beren etxeokoa nola bizi ziren esateko, ama baten estutasuna aipatzea aski! Sorra zen eta, bere semea minetan, gu bezala.

Gau batez, xerriak kurrinka ta erausika nun asten diren etxean. Zerbait bazela konturatzen eta ez jakin zer. «Naun gure mutikoa dela!», etorri zitzaion burura. (Beti makurrena pentsatzen!)

—«Miel-Anton!», otsegiten dio.

—«Z-e-e-r-r-r!!!» —iduri aditzen zuela.


—«Onez heldu haiz...?»

—(...) —ixil. Erantzunik ez.

Bihotza punpaka duela, erdi jantzia atarira. «Banian, bai bildurra!» zion bere baitan; «zer egin behar diau orai, hi gaixotuta!!»

Jeitxi da, ataria ideki du... Ilargi ederra zeruan eta kanpoan izotza. Goizeko iruak. Txerri otsa...

—«Jesus, Jesus! Zer den sorra izatea! Ustez semea zen eta txerriak erausika... Ala obe!»
Makurrena, etzen egunazko lana; zazpitan afaldu ta, zortzitako, kapataza ondoan: —«Joan behar duk lanera?» Ez ginen tentei egoteko gauza, eta ezet esaten bagenion, kopeta txarra... Gauerdiraino, berriz, lanera.



ELIZAREN ITZA

Eliz batzearen buruz

Eliz eta sail berextuak, beren akatsak izan arren, salbazioko lan-bidean badute indar eta zer ikusia, Kristoren Espiritua aietaz baliatzen baita zerubidean jartzeko eta indar ori Eliz Katolikoari bete-betean eman dakion grazi eta egitik sortzen da.

Senide berextuak, ordea, naiz banaka, naiz beren eliz eta sailletan ez daukie batasunik, arako Xistok eman nai izan ziotena, korputz batean eta bizi berri batean sar-azazi zituenean; Kristoren Eliz katolikoan bakarrik, salbabide guziak, oso-osoa eta bete-betean arkitu ditezke. Sinisten dugu Jaunak Itun Berriko ondasun oro utzi zizkiola Apostoluen bazkun bakarrari, ots, Pedro buru duenari, Kristoren korputz bakarra moldatzeko lurrean, eta oni erantsi bear dakizkio, era bat, Jainko erriaren kutsua duen guzik. Erri au mundu zear deramakin bidean, naiz pekatupean egin, Xistogan azitzen da eta Jaunak xamurki eragiten dio, betiko zorionera Jerusalem zerutarrean iritxi arte.

Gaurko egunean, munduaren alde askotan, Espiritu Sanduak eraginda, ekinaldi aunitz egiten baitira, otoiitzarekin, itzarekin eta jokabideekin Jesukristok nai dun batasunera eltzeko, Eliz Batzar santu onek, arren eta arren eskatzen die katoliko deneri, arreta aundiz lagun dezaiotela ekinaldi ekumenitar oiri.

Lenik, alde batera utzi esames, iruditu eta jokaldi ariñak, senide berextu oiri ez dagozkietanak, ziñez eta egiz, eta ola zailla-ogak egin dezazteke aiekiko artu emanak.

Bigarrenko, Elkar itzketak, billeretan, Eliz bakoitzeko gizon ikasiak ager dezatela garbi eta sakonki beren ikas-bideak eta bata-bestearen aldeak, elkar-itzketa oikin denek ikusten dute obeki bata-bestearen ikasbidea eta zuzenago on iritzi ere bai, elkarren bizimodu eta eskola.

Irugarrenko, edozein Kristau izakerak, gizadiaren onerako eskatzen ditun egin-bearretan, elkarrekin lan egitea eta ditekera, otoiitz batean parte artzea.

Azkenik, aztertzen al dute denek beren zintotasuna Elizarekiko Xisto-asmotan, eta bear dan bezela ekiten al diote gartsuki beren eraberritze eta zuzentzeari.



—Zenbat irabazten zintuen? —galdegini diogu.

—Bedratzi sueldo; eta eskonbrotan zebiltzanak, amaika.

—Asko zen edo gutxi?

—«Behar bezala jan izan baginu, jateko ainbat! Zerbait aurreratzeatik erdi-janien, gosiak ibiltzen ginen. Beti gauza merkenak janez; eta kintzenan diru pixka bat ikusten ginuen. Gero, gaixotu ta etxera!

—Zenbat urte egin zenituen zuk bizimodu ortan?

—Zazpi.

Bada aski.

Mundu zabalean

• Aurten geienik agotan ibili den itza: pakea. Pakearen ondotik dabilta mundua: gogoan ditugu Aita Sanduaren itzak; erri-agintarien batzarrak; UNESCO elkargoaren billerak; ainbeste amen negarrak... Eta badirudi pakea gizonengandik iges eginez dabilela.

• ALEMANIA.—Aspaldiko istillua dute Berlin, iri nagusian, erdibanatzen duen muga lotsagarria. Famili bateko aurak, odol bereko jendeak txartela behar, alkar ikusteko! Mesedez bezala, Eguberrian ideki zituzten igaz atariak. Idekiko ote dira aurten?

Agintari berriak dituzte sarraldeko Alemanian. Kiesinger da Lendakari berria. Sinestez katoliko. Egitekorik aski izango du bere lanbidean. Dirua badute baño, an ere beste zerbait eskas!

• VIET NAM.— Viet Nam aldean Eguberri eta Urteberritako pakearte baten billa! Bi festa oietan berrogeita zortzina orduko geldialdiak eskatzen dituzte. Orain urte bete, itzeman ondoan, tiroka asi ziren angok. Alare, amerikanoak barkatuko diete. Ain egun aundiak diral!

• CHINA eta ERRUSIA ez dira konpontzen. Heldu den urtean komunista guzien billera egite-

koak dira, eta China bazterrean utziko dute, naski. Ez dira gauzak obeki konponduko...

O. N. U. delako Elkargo Nagusiak, beste alde, China gorria ez du etxean ikusi nahi. Artuko ote zuten ere, frango bero ibiliak dira. Gero erabakitzeke garaia etorri ta, 46 ziren alde; 57'k esan dute ezetz, eta amazazpik, ez bat eta ez beste.

Badirudi jende oriei ez diela min aundirik egin. «Aiek ONU' ren beharra baño, ONU' k aien behar geiago duela», erantzun omen dute.

• RHODESIA.— Ingalterra bada-bil angok zuzendu nahian. Abenduaren bigarrenean izetatuta ziren, itsasoan, Wilson inglesen lendakaria, eta Smith beste alderdikoa.

• FRANTZIAK badu itsas uretik elektrika ateratzeko bidea. Itsasoaren gora-berak baliatuz ibilazten ditu bere tresnak. Munduan lenbizikotatik izan behar du. De Gaulle'k asiaz berria.

• Duela bi milla urte aingeruak esan itzekin utziko dugu, txakur txiki bat bezala pakearen atzetik ibilia dugun urte au: «aintza, ospe, goigoienean Jainkoari, eta pakea lurrean Aren gogoko gizona!».

UR GOYENA



Lengo kantu zaharren kutsua berekin du. Doñu errexeta eta jatorra. Urtearen ondar egunean urketa joaten ziren mutilak eta, gau erdiko amabien ezki-lekin batera artzen zuten beren ura. Gero etxez- etxe ateratzen ziren ur berriaren eskeintzera.

Erri askotako Ur-goyenak ezagutzen ditugu. Ona emen Arruazu'n abesten zutena:

Ur goyena, ur barrena,
Urteberri egun ona!
Graziarekin osasuna,
Pakearekin ontasuna:
Ja'nkoak dizuela egun ona.

Abade jauna, berorren
Lizentziarekin
Nai nuke kantatzen asi
Nere lagunekin.

Egun onak ematera
Famili guziari
Nere deseyua da ta

Lenikan berorr!
Pobre umillen artean
Bcti erruki gaitean
Karidadeak lagunduko du
Zeruetako atean.

Elizan eder liburu
Usoak arren inguru,
Etxe ontako txiki aundiak
Paradisuan aingeru

Ur goyen, goyen iturri,

Ura da txorrotik etorri,
Etxe ontako etxeoandreak
Ama Birjina dirud!

Sentitzen zaitut, sentitzen,
Ari zerela jaikitzen:
Zure labanaren zarratzakua
Emendixen dut aditzen.

Eder soruan go'dea
Soñean kapa morea,
Etxe ontako naguse jauna
Nekazar:txo nobla.

EGUERRIKO KANTAK

Hemen doazin kobla zaar horiek, *Altsasun* eta *Bakaikoan* bilduak dira; Eguerriko arratsaldeetan mutikoek (eta herri batzutan neskatillak ere, Erronkarin bezala) etxez etxe kantatzen dituztenak. Uste dugu oraino ere segituko dutela oitura eder horrekin; hartarako gazteak prestatzen lagunduko dituzte adinekoek, kantak dazkitenek eta tradizioen zale direnek beñikpein; hala espero dugu.

BIDASO aldean berriz, Eguerriko gau aldera halaber, OLENTZERO ikazkin arlote gurea, etxez etxe berdin, eramatea usatzen dute. Kantari ibili bidenabar, sagar edo gasna, intxaur edo gaztain batzu eskatuz etxeo andrear, gero berendu bat egiteko. Iruñeraino ere OLENTZERO ikazkina etortzen ikusi izan dugu joan deneko urteetan; Iruñe-an ere euskaldunak bizi baitira oraindik, pozik ikusten tugu tradizioe zarrak pitzen.

Azken bertsuak berriz, *Urteberri*n bezperan kantatzen oi dituzte BIDASO-ko errietan: oraino ere badira kobla geiago, aunitzek dakiten bezala.

BURUNDAKO KOBLAK

*Joxepe ta Maria
beren Jesusekin
juan ziran Belenera
gaurko gauarekin.*

*Kompañian etzuten
lagunik berekin
gutxitan faltatzen da
gaurko gauarekin.*

*Belenengo etxe batian
jo dituzte atiak,
erantzun balioten
beren amantiak.*

*Bitan tirutan ere
Joxepe josten du
gizona bentanara
txit nekez irten du.*

*Gizonak bentanatik
zer esaten-oten,
"gabian ordu onetan
"zer darabilzu emen".*

*"Donzella bat badaukat
"nerekin aldean
"Semia dekarrela
"Jesus Sabelean".*

*Semia eta donzella
nola-yal daiteke?
Gizon inbusterruba
hortikan ken zaite.*

*Tristura aundi batekin
ziraden gelditu,*

*zeren iñon ostaturik
etzuten billatu.*

*Orduban esan zion
Joxek Mariari,
estalpe bat badakit
eta segi neri,
Antxen deskantsatuko
zera tristi-ori.*

*Ganbelan paraturik
astua ta idia
ayen onduban zauden
Joxe ta Maria.*

*Oraziuba zuten
eren afaria
artan ekarri zuten
gauaren erdian
eren seme eguzkia.*

*Orra nun mundura dan
Jesus instante berian
Notizi au pasagoida
Magoen errira.*

*Jesus adoratzera
Erregeak joan dira
Erregalua egin diote
iru gauarekin,
urrea eta mirra
izentsuarekin.*

*Agur orain etxekubak
ondo geldi bitez
Jesus jayo da eta
konsubela bitez.*

«ABENDUA» AMETS NAHASI BAT...

— 1 —
Denbora santu oraingo onetan
dagokigu kristaubari
axola aundiyaz zintzok agertzia
begiratuz Argiyari.

— 2 —
Jantzi premitan arkitzen gera
oitura garbi jantziyaz.
¿Ez ote gera ibilli abetzaz
biar baño geigo antziyaz?

— 3 —
Eleiz Jantziya, illunak dira;
ez da ikusten lorerik.
Ixilltzen dira soñu alaya,
abesti hossana pozgarririk.

— 4 —
Eliza santuak ixurtzen ditu
inzensu usai gozuetan,
alako eskari, alako otoiak
Abenduko denboretan.

— 5 —
Igarle aundiyak ikusten zuten
Seme Jesusen Jayotza,
prestatuz ongi zetorreneako
jende guztiyen biyotza.

— 6 —
Eguerri jayak datozeneko
prestatu itzagun bakoitzak
labe onetan bero ditezen
baldiñ badauzkagu otzak

— 7 —
Jan eta edanen geyekiriyak
biar ditugu gorrotatu.
Aragi griñak baztertu eta
danak ongi menderatu.

— 8 —
Ordu da, anayak, ernatutzeko
lo zorro aztun onetatik.
Arratsa jun ta eguna dator
laxter bere bidetatik.

— 9 —
Ongi etorriya emateko
guri dagokigun eran,
beste biderik ez det arkitzen:
maitetasun osua eman.

— 10 —
¡O zu edozeiñ, kristau zerana,
bixtu zazu zagan maitetz
sinismenezko argi biziya:
bizi beti zeru ustez.

JOAQUIN ALDABE

Neketan,
bizitz arantzetan,
makur burua:
eguzki sua
gure on lanetan:
neketan.

Lagundu;
keak leundu:
besten beharra
gure negarra:
biotza bigundu;
lagundu.

Alkartuz;
bekaitzak baztartuz;
batasunean,
maitasunean,
lanean azkartuz
alkartuz.

Etxetan;
gela, sukaldetan;
begi ariñak,
itz atsegiñak,
pake biotzetan;
etxetan.

Etxeak
ta beren iabeak,
bakarka ez on:
elkartuz konpon:
berritu legeak,
etxeak.

Beiaikin,
goaz alkarrekin
lurrak lantzeria;
azi ereitera...;
asmo ber-berakin:
beiaikin.

Neguan,
garai soseguan,
asma, udako
lana arintzeko
zer dugun buruan:
neguan.

Gaztea;
senar, emaztea
ta ezkongai,
gutako nornai,
on zaizu elkartzea:
gaztea.


Bakarra;
begian negarra:
laneko urri;
alperrik kurri:
bizitza zakarra:
bakarra.

Danokin,
lan egin gogokin;
alkar maitatuz;
alkar lagunduz;
nekean pozakin:
danokin.

Barride!
Gauden adiskide!

Zuek, gurekin;
ta gu, zuekin;
Guzion onbide!
Barride!

Ametsa?
Amets ain kiretsa?
Ain biotz onez,
ain maitasunez
suturik saietsa?
Ametsa?



IBARRONDO

OLENTZERO

Horrá, horrá!
guré OLENTZERO
Pipa ortzian dula
ixerita dago.
Kapo pareakin,
arrolzetxuakin
bigar merendatzeko
Botil ardoakin. (bis)
(Estribillo)

OLENTZERO joan zaigu
Mendira lanera
Intenzioarekin
Ikatz egitera,
Aditu zuenean
Jesus jaio dela
Lasterka etorri da,
guri errattera. Horrá...


Olentzerok esan du
biotzez egia
Ikusgarria dela
aur jaijo berria,
Begiak dituela
izar txoil argiak,
Igzuki ederra dela
bere arpegia.
Horrá, horrá...

Hemen eldu gerade
berri on batekin,
Gure enbaxadore
Olentzero-rekin,
Idiak eta astoak
beren gurdiakin,
ezin karriaturik,
zagi ardoakin. - Horrá...

Olentzero gureak
joan nai du etxera
sukalde bazterrean
lasai afaltzera
Nafar ardo zarrakin
gazta bat jatera
eta gero patxadan
pipa piztuzera. - Horrá...

Olentzero buru aundia
entendimentu gabea,





Su bazterrean

Su bazterrean, supil aundiaren ondoan amets egitera natorkizu. Gaztainak suan balin ba dituzu eta obe...

Eskualerriko Gau-onak sua behar dute ederra. Ez al-da egia? Zer bat ez baño, norbait da gure sukaldetan sua. Surik gabeko etxea otza da.

gorputz hila bezala. Suak bizi du aitaxi zaharra; eta sugarrak berotzen ditu, neguan, haur txikiaren xatarrak.

Suak badu bere izkuntza. Iduri mintzo dela; zerbait esan nahia bezala... Zenbat aldiz egoten ez gira, ixilik, pentsaketan, denborak eta

denborak suari begira! Doñu gabeko itzak.

Suaren begia garbia da eta garbizalea. Bota suari ondar ustel edo ikatz-arri beltza. Bera zikindu gabe xurrituko ditu denak. Aingeru argia egin zuen Jainkoak sua.

Burni gogorrenari ere biotza arrapatzen dio, eta edozein iturritako ur negartia bezain guri gorritzen. Jainkoak berak suaren antza artu zuen Moisesekin eta Mendekoste egunean...

Alare, Gau-onetako sua ez da beste suak bezala. Nere biziko orotzari gozoena agur bat da. Urtero ikusten nuen nere etxean. Egur politenak biltzen genituen sukaldera eta bakoitzak bazuen bere izena. Gero, aitak sartuko zituen sura, norrena zen esanaz. Familiko guzieren egurrak...

Aitaren anai bat ba ginuen Ameriketean. Eguberri aurreko astean beti adierazten zigun: «ez dailela nere egurrik faltatu...» Aren egurrik etzen ogeitamar urtez gure etxean utsegin. Azken urtean argia zuen elizan...

Ainbeste gauza esan nahi ditu Gau-onetako suak! Amak bere semeak ditu gogoa eta kanpoan direnak geienik erretzen bihotza. Kanpoan dagona, berriz, etxera begira...; eta bi aldetako garrak elgar jotzen dute egurraren beroan.

Su bazterrean, belarrira esan dizkizutan itzak, famili aundi bateko haur txikiaren itzak dira. Urte bat betetzera nijoa. Lenbiziko Eguberriak ditut eskualdun etxetan. Ez nuen uste ainbeste seme genituela falta! Piztu nezake oroitzen aundi baten egurra.

SAGI

FRANZI ALDEN

Denok dakizute, nola bi apaiz izandu guran mut'illak ikusten Franzi ko mendietan: Mauleon, Lourdes, San Gaudens Col de Marous, Die, Digne... Toki amiztan ibilli gera eta mutil aunitz ikusi ere bai.

Bañan zertara joaten gera?

Aunitz entzun dezu, bear dela lagundu batez ere Españitik kanpora joaten direnei. Urtean bein zelebratzen degu "Día de emigrante". Modu askotara lagundu ditezke; kartak eskribituz, periodiko, edo revistak bialiaz, lana billatuaz, ekartzen duten dirua ongi kolokatuaz edo kanbio on bat emanez...

Guk uste degu, person bateri laguntzeko bear dela bere probemak ezagutu. Mutil auek problema aunitz daukate; eta nola ezagutu bere artara joan ta baño obekiago?

Au da bada lenengo arrazoia.

Orregatik egoten gera ez bakarrik mutillekin, baita nagusiek ere. Azaltzen ditugu mutilen beartasun guziak: nola dauzkaten "carta de trabajo" eta pasaporteak, chabola obeak jarri ditezken, ongi tratatzen dituzten eri daude, ia jorنال ona irabazitzen duten, erreminta onak dituzten edo ez... eta Eguerritako egun auek.

Nagusiak oso ongi portatu ziran; uste degu modu ontara aunitz egin ditezke.

Gañera ez degu nai pentsatzea zuetaz aztuta bizi gerala. Errietan gaude zuei laguntzeko, eta ez errian bizi diranei bakarrik, baita ere kanpora joaten direnei ere.

Zaude ia zure etxean. Ongi etorria. Egun onak pasa, batez ere Eguarr'tako egun auek.

Dirua ongi gordu; paperazkoa, bañan "zillarrak" baño geiago balio duna; zenbat izerdi ixuri dezun...



Aranaztarrak beren «artzayakin» Franziko mendi batean.



ARALAR'KO AIZEAK ARTZAINGOAZ «ARALAR'ko ARTZAIA»

Mendiko erregea artzaia izandu da beti. Artzaia menditik botatzeko ñalak egin izan dituzte, an-emenka ta noizbeinka, piñuzale diran Diputadu jaun batzuk, «Erregerena»ko irugai edo guarda zintzo batzuk, meatz billatzaleak. Baita, (mingaño gaitxoak diotenez) Orreaga'ko kanonigo agurgarriak ere...

Baño alperrik! Artzaia beti mendian, jaun da jabe, bidezkoa ta berezkoa danez. Bere gibel jaleen kontra garai atera izan du da aldioro.

Ba du ordea artzaia menderatu ez dezake etsai anker bat: negua. Auxe du begiko fitsa. Au da artzaiari kezka eta eloak, buruaustea eta problemak ekartzen dituen etsai ongabea.

Neguko, edo udazkeneko ipar aize otxak lenbiziko elur amokelak ekartzen ditunean, goibeldu ta illundu egiten da artzaia, artalde ta artzaingo tresnak bildu ta bera jetxi bear ditula adierazten baidiote. Ta ori egin zun joan den ustegabeko elurteak.

Izan ere, oso mutur beltzarekin etorri zakigun elurra, ain zuria izanik. Asi bzan asi, ia metro erdiko elurlapatsa bota zun Aralar'ko tontorretan, ta termometroak, zenbait gaeuz, 6 zeropetik markatu zun. Aralar utzi bearra zegoen ba ta, adio jaunak! Agur esan bearko mendiari datorren udaberri artio.

Geiagokorik gabe, asi ziran artzaia, norbere zakurraren laguntzarekin, ardiak biltzen fistuka ta oiuka. Txabolean gelditzen ziran azkeneko gazta ta illak, gaztagintzako tresnak: kaikuak, abatzak eta txirriñak, zumitzak eta karderak, kotxuak eta irakazkiak eta bear bada, azken saldutako gazta edo illaren diruak, danak ongi jaso, asto edo beorraren gañean eraz mol-datu ta agur! an joan ziran Mallotan beera Araitz aldera, edo Lakuntzako pertzakotik Sakana'runtz, mendia ixil-ixil utzirik, zein bere alde. Orain eztitugu aituko, ez artzaian fisturik, ez ardiaren marrakarrik, ez artzaioen zaungarik, ipurubeltzak bere lore txiki politak berriz eman bitartio.

Agur, ba, artzaia. Guk ere, Aralar'en negu guziko gelditu bear geranok, aldendueran tristeki agurtzen dizeugu. Ezpaiditugu ikusiko denbora puska batean zuen brusa beltz garbiak, ezta zuen zata, bartan ta oatiak; ezitugu aituko zuen euskera jator goxoa, ez ditugu entzungo zuen Kirie, Gloria ta gañerako eliz kantu ozenak, ezta zuen bazkalondoko bertso politik eta maltzurkeririk gabeko irri ta parre alai xaloak, zuen enbido ta ordagoak. Zuek zerate mendietako alaitasunik eztena ta bikañena. Zuek, bai, mendiko erregeak. Zuekin batio joan zaigu ba, goitik bera, alaitasunik alaiena.

Baño ipurubeltzak berriz ere, Jainkoak onez, emanen ditu bere lili politik, negu beltz bortitz au igaroko danean ta...

Ordu artio, artzaia!

Neguak dakarkigu
Kazkabar ta elur:
Orrek ematen dio
Artzaiari bildur.

Jasorikan ardiak,
Tresneri ta zakur,
Penaz esan bearko
Aralar'i Agur!



Etxeberri, Apeztegi, Gereza ta Ayetu, Aralar'ko artzaia.

Aita Adrien Gatzitegy Gortari, Mixiolaria

Afria beltz barrendik etorri-ta gure artean arkitzen da Aita Adrien Gatzitegy Gortari, mugaz beste aldeko euskaldun Beneditar Mixiolaria.

Ixtori ta kondaira aundiko praille euskalduna degu Gatzitegy Jauna. Milla bederatzieun ta ogeitabatgarren urtean etorriko zan mundura. Bere guraso agurgarriak, aita Aldudearra, eta ama Arraiotzarra, «benetako guraso» zintzoak ziran. Bederatzi seme-alaba izan zituzten.

Gure Adrien muttiko kokorra zela ta bere anai Jean Baptiste zenaren bidea jarraituz, praille sartu zan «Abbaye de Belloc» izen sonatuko Beneditarren konbentuan.

Meza berria eman zuen bere sorterri Aldude'n. Andik bi urtera asi zan Paris'tik berreun kilometrotara dagoen Angers irian «Ingeniero Agronomo» karrera egiten. Ta bai egin ere. Baditu lan batzuek argitaratuak agronomiari buruz. Frantzes ta euskera dabilki lan orietan.

Bai ta ere, eta gerora, Frantzi'ko Gobernuak agindurik, joan zan uraz beste aldeko txoko urrutietara, au da, Ipar-Ameriketara, artzai euskalduneri buruz «estudio» bat egiteko. Beste liburu interesgarri bat badauka argitaratua Ameriketako artzai euskaldunak dirala-ta.

Aundiak eta luzeak izan ziran bere Ameriketako ibillaldiak. Eta ango ainbesteko gertakizunen tartetik, ainbeste dira!, bat artuko dut: Bide luzearen zear zijoalarik egun batez, «topatu» zan artalde aundi batekin, eta, ardiak, autoaren asotsa entzunik ta gañean zutela ikusirik, banatu ziran alde guzietara. Artalde atzetik zijoan artzaia, arrazoi aundiarekin, asarretu egin zan. Gure praille euskaldun jatorrak ikusirik zer lana jarri zion artzaiari, lagundu zion ardiak berriz elkartzen. Au ikusirik artzaia, ondoratu zanean, «eskerrikasko», esan zion ingelsez. «Badirudi entenditzen zaiola ardieta». Gure prailleak bereala

igarri zion artzaiaren ingelsez mintzatze ura etzela amerikano batena, euskaldun batena baizik. ¿Nungoa zera?, esan zion prailleak euskeraz, eta artzaia gizajoak ura entzun zuanean buruko illak zutik jarri omen zitzaizkion ta biotza bete, ikusirik lurralde aietan apaiz euskaldun batek mintzo ziola. Artzaia larriturik: Ooo!! ¿zu euskalduna? ¿Nungoa zera?, galde egin zion berru prailleak. Artzaia: Ni, Arraiotz'koa. ¿Arraiotz'koa? Bai. Nere ama Arraiotz'koa zen! ¿Nor? ¿Nungoa? Onelako etxetako. Egon ta ibilli, bere amaren lengusua bai zan, berrogeitamar urte aietan Kalifornia'z zegoena.

Ameriketean emezortzi illabete egin ondoren, berriz itzuli zan Frantzi'ra ta ekin zion bere lanari.

Eta, azkenez, Eliz Amaren deadar aundiari erantzute arren, mixiolariak bearrez, nola or barna joan zitzaigun Afrika beltzeko lurraldetara, Dahomey deitzen zaion Republikan arkitzen dan Zagnado erri kozkor batean dauka mixiolariak bere eginbearra. Ezin esan alako klima txarrak, bero ikaragarriak, ta kezka aundiak euki bear ango itsusgarriko subeen ta beste mota askotako zikinkerientatik.

An daramazkien urte labor oien zear, iru-lau, jasota dauka etxe ta eliz kozkor batzuek. Bertako zurgintza, igeltserokoa eta arotzkoa beurek egiña daukate den-dena.

Lan oiek denak eta beste milla gauzen «bizia eta argia» ikusi ta ondoren, ementxe degu, Euskal Errian, gure Aita Adrien. Sulduta, makalduta, etorria da piska bat.

Asper eziña da berari entzutea ta asko idazten al genduke beragandik.

Ongi etorria, izan zaitetz, Aita Adrien, ta atsedan izan ezazu. «Principe de Viana» illeroko onen bitartez, agurtzen zaitugu euskaldunok.

GORTARI UGARTE tar YON

ERRIZ-ERRI



SUNBILLA

Bi urtez egon dira Sunbillan apez bat bakarrek, baño orain berzte apez bat geyago dutelako oso konten daude. Aurten meza emana da, ta Don Fermin da bere izena. Ulzama'ko eta Basaburua'ko ballara (valle) ondoan, Imoz'ko ballara dago eta an Echa'eku izeneko erri bat; erri artakoa da Don Fermin. Bazterrak abudo maitatu ditu; zentro-txo bat egiten asi da, ta mutikoak laguntzen diote. Berari lagundu bear liokete sunbilla' dar guztiek zentro-txo ori euren mesederako izango bai da.

Erriak maite du apez berri au, gaztea, bizi, gizartekoa... dalako. Sunbillako apezak lana aundia egin dezatela erri guztian mesederako!

Yoan den neguan eta antzina-koan bezala, aurten ere asi dira abenduko 6'an Irungo Lasalle'ko Eskuola Profesional artan eskola ematen.

Eskol au 18 urtetik 40 urte arteko muti' eta gizon ezkondu ndako da. Auentzako fabrikatan sartutako prestaketa bat da; eta erdaraz "Formación Profesional acelerada" deitzen dute.

Sei llabetez ematen den prestaketa au arratsaldetan izaten da. Mutil oyen erritik ateratzen da autobus bat bazkaldu ondoan Irun' era eramateko, eta borts ordu ikasten pasatu ondoan berriz etxera autobus beran itzultzen dira.

Gobernuak laguntzen du eskol aukeratu'atzen, eta orregatik ikasteagatik mutillak ez dute deusere pagatu bearrrik. Irungo eskolara egiten dituen yoanetorriak ere mutillak ez ditute pagatzen; yoan-etorri oyeok oraintzen ditu Naparroko Diputazioak eta Caja de Ahorros'ek.

Aurtengo neguan Sunbillatik asi dira lau lagun, Yaz iru lagun ibiltziran eta antzina-ko neguan berriz sei lagun.



LESAKA

Lesakatik bial azken lantxoak. AMABOST URTEKO MUTIKO BAT'ek egiña ta izenpetua zan.

Biotz-zarrada ez txikia yauziarazi du zombait irakurletan. Begira emen eskuratu zaizkigun bi esku-titza. Ogei urteko gazteak idatziak dira biak. Eta pozgarriak ziñez eta benaz.

BATA

"Zu mutiko gaztea zara; neu ere bai, 20 urte; eta beraz emen Bizkaian, "ika" itz egiña izango izateke normala, baña Bizkaiko eta "Naparroko itzak oso ezberdiñak" dirala ta, "zuka" egingo dautsut.

"Baliteke nere esku-titz au ondo ez ulertzea, baña "apezaren", zuek "diñozen bezela, laguntzakin egingo dozula uste dot.

"Ni Bizkaitarra izan arren, oso "Naparza" ea naiz. Orain datorren "igande, astelen eta asteartean, Tafallan izango gera emengo 13 la. "gun, Naparroko alderdi ori ezagutzearren. Ba, diñotan bezela "Naparzalea naiz eta "Principe de Viana" aldizkaria egoala enteratu "nintzanean Z. ARGIA"ren bidez, "Iruñera eskatu nuen eta leengo "lumerotik dan danak artu dodaz. "Gaur zure artilotxoak irakurri dot eta asko gustatu yur. Oso ederto egin dozu. Ekin aurrera.

"Ekin aurrera naparrak gure "euskeraren alde. Or dozue "Fuerodun Diputazioa. Orrek asko al "du; gureak baño geiago. Zertara. "ko Fuerodun Diputazioa Naparro-

"ko jatorritzo izkuntzari iltzen "uzten badautso? Ekin Naparrak, "ekin! Guk baño geiago al dozue. "Sar zazue zuen eta geure "eskua- "ra goxoa" eskoletan. Agur muti- "ko jator ori. Bota bosteko ori".

BESTEIA

"Asko poztu naiz zure esanak "irakurtzean; niñ uste, aurten ar- "tu duten berri onena au izandu "da; gauz bat bakarra etzait ondo "iduritu: Ni emengo agintaria ba- "in"...

"Begira; au da nere bigarren "urtea Zaragozan, Lesaka erri txi- "ki polit ortatik 300 kilometrara. "Ta nik uste, emengo euskal gaz- "tedi artean or baño alkartasun "geiago arkitu det. Esanak ez dira "ezer; orregatik ona emen egiñak:

"Jai guztietan, nai duentzat, "izaten da Meza euskeraz. Eun da "berrogei bat neska-mutill alkar. "tzen gera, Bizkaia, Gipuzkoa, "Araba ta bai ta ere Naparrokoak. "Meza bukatu ondoren, joaten ge- "ra danok kalez-kale gure txistu "ta danboril soñuekin".

"Ogei bat mutill eta ainbeste "neska euskeraz ikasten ari dira; "oieri erakusteko amar bat nes- "ka-mutill gera. Nai dunak abes- "tu, or dauka "Coro Vasco" dei- "tzen dana. Bai ta ere Txistu jo- "tzen eta euska'dantzak erakusten "dira. Gauz oiengatik ez du iñor- "ez saririk artu ta ez ta ere eman "biar. Nik esan nai dutena au da: "Ez dela Zaragoza'ko agindarien "gauza; au dena emengo euskal "gazteak, alkartasunean, egindako "gauza da".

"Zergatik Lesakan gauz bera ez "egin? Nik uste, zu bezelako gaz- "teak geiago izango dira; ez? "Aupa! bada".

LESAKAR BAT ZARAGOZAN

Udazkenaren asiera ezin ohea izandu degu aurten. Arto-illarrak aski gibel ari ziren zoitzen, bña aize egoak eta iguzkiak ernarazi zituen beren le-modorret'k. Izan ere, loriagarriak egin dituen eguraldiak.

Etzen batere udaren azkena. Sasoi onek, ona ba'in bada, bai baitu bere nortasuna, iñoren azkenik eta astapenik gabekoa, bere-berea, bete-te bete, gure lurralde oketan nagusiena.

Baño... "Baño" gabeko deusik bai ote? Udazkenak ere izango du berekin. Eztakigu nundik, biño ikustekoak ziren emengo enbata, eria, ugaldak. Erreka sartuak gizendu dira, loditu, urberritu. Arrantzariak kontent; azaroan urak berretzen badire, amorra urtea izaten omen da ondokoa.

Bitartean nekazari jendea kezaturik dago; ez baitu eguraldiak laguntzen behar bezela artoen biltzeko. Oraingo ontan arrazoi dute. Negua gabe aize-euriak esmetuko dira, eta nekazarien errenkurak aizatuko. A'a nahi genuke. Agian.

Ayundamenduko bi errigizon berri izendatzeko bozka, illabetearen 13'an izan ziren. Yakin, ikusi eta yendea bildunahi franko sortu zen aurreko astean. Erriari buruzko asmoak erakutsi zizkieten pamilliko buruei. Ek behar baituzten bozkatu. Argi-ldar; kaleen txukntzea; etxe, erakindegi, eskola berriak eta bertze eginbehar zombaitzuk astindu dituzte, egin zen propagandan.

Berar beharrezkoa Lesakan kamio berri bat, "Laminaciones" lan-tegirako kamionak erriaren erditik pasatu gabe ibil ditezten. Diputazioak artu ditu bere aldetik erabakiak. Erregebidu nausitik lan-tegirafioa ki'ometrak marka-tuak eta zotoituak daude. Eztaki-gu oraindik noiz asteokak diren lanak. Lenbailen obe litzake.

Bertze aldera berriz ez da bate-re sasoi atala olako lenen egiteko. Egunak labur, negua gañian, iduri zaigu orain arteko soñu-burrun-bak beharko dituztela yendeek yasan karrrika bazterretan. Udaberriak erranen digu zerbait. Kontent giñake auzia erabaki baleza.

ARANIBAR



SALDIAS

BIDE ZABALA

Atzo San Martin aundiaren egunean suertez bukatu da gure bide zabala. Orain esan dezakegu Saldias'ek baduela kamio ederra. As-paldiko gure ametsa gaur egi biurtua. Orain gure bearordu guzietarako ateriera bat badugu. Gaurko egunean oso bidezkoa da. Orain noiznaiz eta nolanaiz etorri zindegukete zeuen autoan errira.

URROZ (DONEZTEBE)

ELIZA BERRITZEN

Urrozko erriak zar-berritu du bere "PONTE-ELIZA". Egia esateko, bear pixkoat bazeukan. Eliz-sabaia (bóveda) burun-buru ta bi baztarretako paretak nagusiak goitik-bera zerrendan lertuak azaltzen ziran. An sartu-ta lertu oiek ikustean, bereala pentsatzen zuen batek: "au galzki z'ok ola, ia uste-gabe batean etortzen den guzia bera".

Aurtengo Maiatzen asi ziran Eliz zarra berritzeko lanetan. Gaur esan dezakegu ia bukatu dago la. Egitekoa oso gauza gutxi bait da, egiñ denaren ondoan.

Esate baterako, Elizaren gain-azpiak (tellatu ta zimendo) josi dituzte inguru guzian eta baita ere gurutzean, naiko burni ta "por-lanez", geiago ez urratzeko gisan, gurdiaren kurrilla bezala. Esan geitezake, oiñetako onak eta txapel ederra jarri dizk'otela. Orañi ez dago azpitik ura irazteko eta goitik "tantaka-tantaka" itxoxera etortzeko bi'durrik. Ongi egiten dan lanak ez du parerik eta sekulan ez da izaten urrikirik. Esatera zarra da: "Lan onak, uzta (fruta) ona..."

Eliz-sabaia (bóveda) lengo apain-garriak berekin dituela konpondu eta txukundu (pindatu) dute. Bere uzta-zaiñetan kolore illuna eman diote, Elizak dun arriaren kolore antzekoa, ta tartean txuri illuna. Bukaeratan berriz illuna, urre-ko'orezko erri batzuekin. Orañi beste bat dirudi.

Beste lan bikaiñ bat ere egin dute. Eliz-barrengo lau paretai arpegia garbittu diete. Kisu ta "morte" zarrez estalirik zeukaten arria agerian jarri diete, arri-tarteak kisu-beltzez (zemento) apainduz. Aza'du dan arria ez da, beraz, aundia, Eliza bezala txikia baizik, baño oso ongi egokieratzen da Eliz-beraren zati ta neurriek'in. Orrela paretak oiek beñi-betik edertuak gelditu dira ta Eliza guztia errespetoz eta itzal-aundiz jantzia.


Meza emateko "Aldare-maia" arrizkoa egiteko dira, bertako arr-biko atxurdiñ (marmol) arriekin, Meza Santua erriari begira emateko eran. Aldare-in'uruko zola atxurdiñ txuriakin eta Sagrario ingurua, berriz, atxurdiñ gorristakin. Ez dago esan bearr'k oso ederki ge'dittuko dirala Elizaren alderdik nagusiena oiek. Lan au Urrozko "arrubiko" nagusien kontura omen da. Jauzak gogoan artu bezaie saritzeko.

Eliz-aldare'etako oltza guztiak kentzean, beste dirdari ta ganoso tasun bat azaidu da. Orañi Elizaren paretan bertan jarriko dituzte Sagrarioa ta Santuen iduriak. Sagrarioa berria jartzeko dira eta lenago Aldare Nagusia zegoen tokian, paretan sartuta. Aren gainean lengo Santo Kristoa, Baita ere Ama Birjiña Errosariokoa ta San Mige', erriko patronoa, ba-ko'tza beuen lekuetan.

Urrozko Ama Birjiña Errosario-koaren iduria balio aundikoa da, egiñik urte aunitz dituelako. Aita Klaberiak zionez, Belatetik onat iduri ori beziñ zarrik bat bakarrik ere ez omen da. Diotenez 14'garren mendekoa omen da.

Pentsatzen dugu urrozarrak aspaldiko ametsa egi biurtu dute. nean oso pozik egonen dirala.

"BONOXTA"



NAPARROKO BERRIAK

Iruñeko eliz-barrutian Artzai-buru izandako Olaetxea jaunak Valencia'ko artaldea utzi du. Euskalduna, Barakaldo'ko tximini eta ke-belz azpian jayoa, Españaiko apezpiku guzietan aurreratzen da. Eliza berrituz joateko litzake Aita Sanduaren asmoa, eta adin bateko artzai agurgarriak beren txapel eta makila Erromaren eskutan utzi behar litzaketela, agertzera emana zien. Aita Sanduak onartu du Valencia'ko jaun gotzaiaren erabakia.

Iruñen zezen-plazako lanak asiak dituzte. Olentzero buruaundiaren txapel txikia bezala omen zen, eta bururik ez estaltzen. Alare, sanferminetan sartu nahi izaten duten guziedako aunditu nahi badute, iru bide ikusten ditugu: Iruña erdia bota eta aski zabala egitea; dagon lekuan, zeru aldera jotzea (Pisa'ko balantzatua bezala); edo gau eta egun «zezen-festak» atertu gabe egitea. Orduan elitzake plaza aunditu beharrik. Bere ikusiko dute.

Iratxeta ere izen eskualduna da. Tafallan beitik dagon etxe zahar baten izena. Orain konturatu dira balio aundiko etxea dela eta «monumento» izendatu dute. Eta aspaldi an zegon! amargarren mendekoa izango omen da ta...

Nafarroko agintariak ere Madrileko bidean or dabilta... Numbait gure diru-kontu au ez da makala. Zer aterako den ikusi arte ixilik zauden bazterrak; baño, Madrileko egunkari batek lertu du tripota. Eta zirta guztiak gure begien kontra. Zer mutila!


Beharrik agoa itxi bai diote! Mando baten kristal-untzitegiko trosta etzen politago izango. Eta gizotasuna noizko?

Negua negu. Baño aurten lenago atera zaigu kanpora! Euri eta elur, zerbait-zerbait eginik badu. Aralar mendian, sanmigel'tarri galdetu behar! Azaroaren azken egunetan ere metroko elurra bazutela ta... Atx mutikoa!

Urte zaharrak betiko kontuak; eta Berriak, bizi denak ikusiko!



BASABURUA



Basaburun, lan azkar egiten da baño, jai ederrak ere bai.

Gure Diputazioko Euskal illero-koa artu ta ikusi giñunean, asko eta asko poztu giñan. Ezdago dena galduta, numbait gizon jatorrak badira, gutaz oroitzen direnak, pensatu nuen nere baitan. Gure biotza aingana xamur dago: baño egia esateko ori ezta aski. Zorretan gaude, oraindik ezdugu itzik ere atera, esker txarrekoak gera'a iduri du.

Garaia baldin bada, gure agur beroenak emendik: Urmeneta Jaun trebeari, Uranga Jaun zintzoari, ta "Principe de Viana"-ko lagun guzietari.

Roncesvalles deitzen den orri onen irakurleak, gu nor geran jakin naiko dute, noski.

Naparroan, bi Basaburu badire: Aundi ta Txiki. Gu Aundienekoak gera. Ezta oso ezaguna, ez, ibar au, basoan sartua dagolako. Gure xaarrak obekiago ezagutzen zuten, mendiz ibiltzen zirelako, Irurtzun'go ferietara juateko eta... abar. Oraingo gazteak berriz kamioz ibiltzen baitire.

Ultzama ta Irurtzun a'deko tar-tean dagola esango dut. Ostiz'it'edo Arrazik Pentatik, Ultzaman sartzen bazera, karretera ori dena segi, ta Basaburua topatuko duzu: bi aldetara daude erri guziek: Orokieta, Erbiti', Garzaron, Aizá-roz, Igoa, Arraras, Jaunsaras, Beruete, Iaben, Itsaso, Beramendi'ta azkena Udabe, emendik aterako zera Urri'tza'ko Pentara, Iruñe'tik Donosti'rako bidean.

Erri asko, baño gende gutxi gaude. Bi milla animetara ezgera

alleatzen. Toki oso polita da, udar-rako ona, negua berriz gogorra; Beruete'ko mendik nolanaiz kaska zuriturik agertzen dira. Emengo bizibidea, azinda ta nekazalgora. Muti' askok, uda aldiaren oianetan lan egiten dute.

Industriarik eztago, Aizaroz'ko edo Jaunsaras'ko zurgindegiak ez-padire. Industri berri bat jartzeko une ederra izandu zen, baño jaun-txo batzuen gaiztakeriatatik, ta beartsuen aultasunagatik, Ultzama'ra joan zen, diru iturri ori.

Bakarren batzuk Irurtzun'era, edo Leitze'ra joaten dire egunero lanera. Aberastasanak ongi partitu ezagatik ere, etxe osoak Gipuzkua'ra edo Iruñe'ra atera dire.

Oian onak badire emen, batez ere, Beruete, Orokieta eta Igoa'n. Bere garaian, arrantzale asko etortzen dire emengo errekarra, amorra ona badelako.

Aurtengo usok joan ziren; Uda-be ta Itsaso'ko alderdin il zituzten franko. Orain eztago len añeko izirik, erbia bai dextent.

Egun, bazter guzik, azaletik ari naiz jotzen; urrengoan ikusiko ditugu, banaka-banaka, erri guztiak, zar eta berri, gauz on guzik aterako ditugu. Kontu geiago ere bai, kotxe frantsesa asko ere ikusten dire, oian-mutillak ekarriak; ostatuak beteko dire orain-txe, eta an salsatuko Franzi'ko ta emengo kontuak, ibillerak, irabaziak, apostuak ta geroko asmoak. Urren arte.

ITURRI-ZAR



MARITXUK: Aspaldion atzendurik ginuzkegun «botuek» izan ditugu: an ikusi natzun zu ere «papeleta» eskuetan...

ENGRAXIK: Bai, ta «botu» ok, ongi emanez geroz autatu bear danaren alde geroz, gauz onak direla ezin uka.

M.: Ongi eman...; bear dana autatu...; untan dago bada lana; nor nolakoa izanen dan, nola ezagutu? Itzeder agertzea, zenbaitentzat gauz erraza da: autatua izan ondoan eskeñitakoa egitea berriz, zalla: eta egingo ez duenari ematen badiogu, urriki franko gero, baño alferrik.

E.: Ez al zera agian «botua» eman gabe gelditu?

M.: E, eman gabe? Ez orixe! Iru «papeleta» eskutaratu zitzaizkidan, eta iruak elkarrengatuta inñor ohartu gabe bota nituen xulotik. Nork obeki eman?

E.: Baño Maritxu! Ain funs gabea ziñela ez nuen uste!

M.: Nai duzu bateri emateagatik bertzeekin gaizki gelditzea edo zer? Ez duzu irrik eginen. Nik denekin ongi bizi nai dut ta kitto. Asarre ausarki bada munduen, geyagorik plantatu gabe. Aita Saindua ere or ari zaigu bakearen alde otoitz eske...

E.: Utzazu, maztekia, Aita Saindua bakean! Zuk egin duzuna danok egiñaz, poz guti artuko luke Elizaren Buruak.

M.: Nai duenak, nai duena! Nik nere erriko «Konzejal»-gayakin bakea nai dut: ta errikoak errikoekin bakean bizitzea nik uste Aita Sainduak naiko duen...: aldameneko errikoa ere bake nai nuke ikusi: ondoko errira yoanta, arrikoaldi bat edo bi artzea ez zait bada goxo: irugarrena, dakizun bezala, gu danon putzutik ateratzalea dugu: bazterre utzagun, ta gure paperrak kirrimorrotuko dazkigu amatxi! ta bertze biek ere, obe adiskide iduki: ez zuk ta ez nik dakigu besapean zer dakarren bakoitzarentzat biaramonak: aurra ninzanean, aski irri egiten nuen Pelloz; koxkortu zanean, zenbait goxo yanak aren bizkar! ta azkenean (nork erran?) ni Pellokin ezkondu!


E.: Ez naiz arritzen. Baño iru «papeletak» batean emanez, mesederik inñori; kalte norbaiteri, baliteke. Gauz ok ez dira txanzetan artu bear. Nor dan obereña, ura autatu bear da. Eman bear zayon lanerako nor dan obereña erran nai dut; bat bere etxeko lanetan eta bizitzan on puska izatea eta «konzejal»-tako balio ez, gerta leike. ta. Untarako bertze aunitz gauzatarako bezala «berezkoo» bear da. Baño berezko ori dutenetan, autatu dezagun obereña. Erri osoaren ona billatuko duen, edo billatzen sayatuko dan bat autatu bear da zuzenpidean. Itz ederrekin txoratu ez gaitzaten, bakoitzaren nortasunari begiratu zayogun. Berekoirik ez da inñolaz ere autatu bear, nai bezein itz politak baditu ere. Sagar batean baratza trukatu nai digunik ez dugu «konzejal»-tako berexi bear, sagarrak goxoena eskeintzen badigu ere. «Nik nere»; bertzeak or konpon» diona ere ez, nai duen bezein izen aundikoa izanik ere... Orrelakoak bazterre utzi bear ditugu, beren bidean «tuku-tuku» yarrai dezatela. Eta zeorrek ez baduzu zere burua salatzen, Maritxu, inñork ez daki noren alde eman duzun zure «botua».

M.: Zuk, Engraxi, noren alde eman duzu?

E.: Ixoo!

M.: A filde! Nik dana, nere Pellorena ta guzi, erran danat! eta ik elerik deus? Ago, Ago!

IBARRONDO



OLENTZERO LESAKAN

Lesaka-n Olentzero egun billera-ko Jai-Nagusia, mendeen illunpetik datorriguna Gabon egunean, gure Erri-etxeko Agindarien arnas ta asmo laguntzakin, gisa ontaz eratua, Jainkoak dezala:

1. Arratsaldeko iru orduetan, ESKOLTXIKI edo LEGARRE ZUGIAN Olentzero daramatzalleak bilduko dira; SEI muttiko, nai ta naiez, Olentzero Itxura bakoitzarekin.

2. Batez ere Olentzeron itxura galantaz, baita daramatzalleen yauntzi txarmantaz (brusa, zapiñ eta abarkak) gizona dan ezker sarituko ditzugu, eta denbora berean, bazter onan aipatutako Olentzero-Kantazartez.

3. Banatzeko sari aukeratu dugu: Lenengoa: 600 xueldo Bigar.^a: 400 xueldo Irugar.^a: 300 xueldo Lau.^a: 200 xueldo

4. Saritu-gabeko daramatzalle talde bakoitzari 100 xueldokin ordainduko zayo.


5. AUZOTARI Legarre, Pikuzelai, Otekale, Plazaberri, Bittirikale, Biurrana, Nabaz, Katazpegiaran, Zala, Erkaizti, Endara, Zalain, Alkaia-ga, Irain eta Izotzaldekua, lagundu ezazu oitura kuttun aukeratu ez ditzazkigun!

Edozein ostatu edo Albinte Jau-naren eskupean marauri, sos, errial edo xueldo dala, laburra izanez, eskertuko ditzugu.

LESAKA-N, 1966-ko Eguberri bezperan.



“EUSKERAREN ALDE”-KO SAILLAREN BERRIA



Aurten betetzen dituzte amar urte «Príncipe de Viana» Elkargoan, 1 parroko Diputazioak «Euskeraren Alde» lan egiteko Sail bat sortu-azi zue Amar urte auetako lanen izkribu bat, laburkiro, emen nai dugu, urrats urrats, argitaratu.

Gaur Naparro'ko Diputazioak egiñikako lan obereña eta txalotueneta bati buruz zerbait esango dugu (urrengo illetan beste lanak aipatuko ditugu). Euskerazko azterketa, edo esamifetan (gaurko ontan) berriak emen ditugu, urtez-urte Euskal-Naparro'ko errietatik zear egindakoak. Eusker onerako egintzarik baliotsuenak izan dirala ezta bearrik esateko. Euskerazko azterketa, edo esamifeta auetan euskaldun diran Naparro'ko Esku adifnetako muttiko eta neskatx guziek premiatauk, edo sarizatuak, izan dira, eta bide batez, gaztetxo auen gurasoei, eskerronak ager-erazi kiote, gure euskera maitagarria, gure izkuntza kuttuna, Naparra aintzine mintzaera eta Euskalerrri osoko izkera ain ongi eta yaioki erakutsi dio lakoz.

Zerbait, emendik aurrean, somatuko da Naparro'an, gure euskaldun errietan, euskeraren faborez? Aurki, bereala, ikusiko dugu orain amar urte egiñikako azterketetan, Sakana'ko eta Arakil'go ume premiatauk zer egiñikako azterketa eta eusteko, ezbaidera makalak izan ume bak tzak jasotako premioak: Berreun pezetako saria, agerkai, edo diplon goxokiak... 1957'urtean Sakana'n eta Arakil'en asi zan lana eta aurt Bidaso'ko Beran eta Saldias'ko errian bukaera eman da. Amar urte Diputazioaren bialdutako jaunak Euskaldun Naparra guzia kurritu dute.

Ona emen urtez-urte emandako premioak, errien izenak, urte bat eta amar urte auetan umiak premiatauk:

URTEAN	PREMIATUAK	PEZT	
1957:	Arakil, Sakana eta Ergoyena	845	168.8
1958:	Imotz, Odieta, Anue, Esteribar, Auritz, Burunda, Erro, Araiz	770	154.0
1959:	Larraun, Basaburu Aundi, Aezkoa, Almandoz'ko erria	743	132.3
1960:	Leitze, Areso, Baztan'go, Basaburu, Irurita eta, Garzain	724	106.8
1961:	Goizueta, Arano, Basaburu Txiki, Elizondo, Lekaroz ta Elbete	620	122.6
1962:	Baztan'go Baztangoiza, Etxalar, eta Amayur	569	113.2
1963:	Lesaka, Bertizarana, Urdazubi eta Zugarramurdi	574	109.8
1964:	Sunbille, Arantza eta Zubietza	419	82.4
1965:	Igantzi, Doneztebe, Elgorriaga, Ituren, Oitz, Donamari, Gaztelu, Urrotz, Beintza-Labaien	565	108.7
1966:	Bidaso'ko Bera eta Saldias'ko erria	363	69.9
	GUZIRA:	6.192	1.168.0

Oarpen bat: Aurtengo saritua, au da Saldias'ko eta Bera'ko mutti eta neskatxek, datorren urtean, Naparro'ko Diputazioak antolatutako Eusl Bestetan, beren sariak artuko dituzte. Badakizute bada, beratar eta saldis euskaldun gaztetxoak, eldu den urtean, guk Euskal Bestak eratuko dituzte, eta premioak banakatu bearrez.

Asteoroko onek euskeraz izkribitzen nai duten euskaldun napa guzien idazlanak, edo izkribuak, onartu eta argitaratuko ditte ber orrialdetan. Idazlanak eskuz ala "makinez" izkribituak izango dira. Edozein gaia ja jarri eta intresduna izan diteke. Berdin zazio izkribu lanak izen-deiturekin sinatuak (izenpetuak) daudela, ala nola izen or dezko batekin bialduak. Alde aurretik bere geroko lankidei, bere euska idazle berrei eskerrak agertzen dizkie.

Si desea recibir esta publicación en su domicilio, exclusivamente dentro de Navarra, envíe este Boletín a: Institución «Príncipe de Viana» -Calle Ansoleaga, 1 - Pamplona.

BOLETIN DE INSCRIPCION

Don

con domicilio en la localidad de

Calle N.º

desea recibir a domicilio y gratuitamente el Suplemento «PRINCIPE DE VIANA».



OILLARRAK KUKURUKU...

Ez dakit nola, baño, aziendak beren deia izan omen zuten Gabonetan. Beren moduan, jakin zuten Jainkoa jayo zela. Gau erditan bai zan, oillarrak nun kantatzen duen:

—Kukurukuu! Jesus jayo daaa!
—Nuuun? —erantzun zion idiak.
—Beeleneen!! —ardiak.

Baño, nolabeit petral batzuk ez diren sekula faltatzen, za' diak ez omen zuen sinistatu eta.

—Ii-ji-jiii! —barre egin!
Astoak, berriz, anka luzatu ta:
—Tas-tas-tas... —iru ostiko bota omen zituen.

Jainkoak denak ikusten bai zituen kastiguren bat ematea buruan artu izan behar zuen.

Baño, bada geiago ere. Errege gaiztoak haurra hil nahi zuela ta, andik ateratzean, mando baten gañean omen ziren Ama Birjiña eta Haur txikia.

San Josek prisa ta, mandoari emanka! Mandoa, berriz, bere pausuan. Ezin gauz onik egin. Alako batez, aztapatu mando ori eta lurrera denak!

Orduan Jainkoak mandoa ere begitan artu omen zuen, eta arrezkeren ez zaldia, ez astoaren eta, ez mando-aragirik ez omen du jan behar kristauak.

A'a balin bada, izan daillela, eta ez bada, probetxu dagiela!

SAGI

URROZTAR UMEAK

Urroztar umeak Eguarrietan Denek etxez-ete eskea egiñez kantatzen dituzten Koplak:

“Egu-berri berri
nik atorra berri:
Egu-berri zar-zar
nik atorra zar.”

Neskatoak

“Aingeruak etorri
Bo'tsak badittugu
Dirurik ez dugu”.

Mutikoak

“Eun sokillando
akill-akillando”

“Zirripilli-zarrapilla
iiBota ostatzak”!!



K I R O L A K

Yoan den Azaroaren 20'ean Donosti'ko Trinitateko plazan aizkora apostu polit bat yokatu zuten Berekoetxea gorritarra eta Mitxelena aranaztarra buruz buru bainan ez berdin. Berekoetxea'k zortzi onbor oinbikoak (1,70 m itzulia) moztu beharrak eta Mitxelena, lau onbor negurri berekoak, biek batean asi eta nork asterrago moztu. Aranaztarrek badaki aizkorian eta abantail ortaz balletuz lanean tranquil aski aritu zen eta neke aundirik gabe bere lana bururatu zuen gorritarrak baino lenago, 6 minuto ta geiagoen bentaja atera ziola. Mitxelena'k lau onborrak 38 m ta 7 s/tan moztu zituen eta Berekoetxea'k zortziak 44 m ta 25/tan. Marka izigarria gorritarrarena aizkora kontuetan dakitenek ala diote. Mitxelena aranaztarra Irune'n bizi omen da, gazte denboran oianetan lanean ari izana bainan amabi urte oketan lan oiek utzita Gipuzkoa'n bizi dena. Orain 44 urte ditu hainan ezaun du oiantza'lea izana dela lanean ongi ikasitako gizona baita eta inñola ere eztago orren doblea ebakitzerik. Yoko gustagarria eta ikusle guziak ere kontenturik bi

aizkolariek ahalmen guziak erakutsi zituztelakotz.

Abendoaren 4'ean bertze aizkora apostu bat izan dugu eta ori ere Donosti'ko Trinitateko plazan. Oraingoan Latasa ta Arruizko Txikia, bi napar orai ere eta buruz buru zeingelagoka bainan ez ordea lan berarekin, Latasa'k 9 onbor 72 ontzako eta Arruiztarrak 6 negurri berekoak, biek batean asi ta zeñek lasterrago moztu. Inñork etzuen uste Txikitok orrenbertzeta-rañoako abildaderik izango zuenik, eta zer gertatu zen? Bere 6 onborrak Latasa'k bederatziek baino aisa lenago moztu zituela, uneri 3 minuto ta geiagoen alde atera ziolarik. Arruiztarrak bere lana 44 m ta 39 s/tan egin zuen eta sunbilledarrak berea 47 m ta 57 s/tan. Latasa'ren marka guzien gañekoa omen da eta or ageri da sunbilledarra bizkor dabilela eta buruz buru inñoren beldurrik ezuela. Txikitorekin galdu du bai bainan oneri bentaja sobera eman baizon, munduan ezpaita aizkolaririk bederatzit oinbiko berrogeitabortz minutoz bera ebaki lezazkenik. Yende asko Trinitateko plazan eta yoko gustagarria.